

**EGIN KIROLA
HAVE FUN!**



**LEHIAKETAKO
KIROL
JARDUERAK**

2018

2019

ESKOLA KIROLA

 **Bizkaia**
goazen



LEHIAKETAKO KIROL JARDUERAK

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 99/2018 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 24KOA, BIZKAIKO ESKOLA KIROLA PROGRAMAK 2018/2019 DENBORALDIAN IZANGO DUEN ARAUTEGIA EBAZTEN DUENA.

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaina-Lunnaaldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b.6 artikuluan dio Kondaina-Lunnaaldee dagokiela Bateango Erakundeek emandako honako gaien artean osabideratu eta egipideratzea kirolaren sustapena, eta eskola-kirolentzako eta guztien kirolentzako egitarauak.

Azken urteotan, Euskara eta Kultura Sailaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak kirolean jarduteko ohituna sustatu du Bizkaiko Lunnaalde Historikoko ikasleen artean.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 5. artikulua ezartzen du Lunnaalde historikoetako Foru-organoei dagokie, zeini bere lunnaalde-esparruan, eskumen hauek erabiltzea: a) Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-kirolaren arloko arauak garatzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea.



Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailaren 1ean emaniko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 14/1998 Legea garatzen du eskolako kirolaren arloan. Dekretu honen bidez, 14/1998 Legeak diseinaturiko eskolako kirolaren eredia ezarri nahi dugu, Kirolaren Euskal Kontseiluak landu eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskadiko Kirolaren Plana 2004-2007 delakoan jasotako jarraibideen arabera.

Horrez gainera, gorago aipatu den eskolako kirolari buruzko dekretu horrek honako hau adierazten du 6. artikuluan: eskola-umeen bilakabide Fisiko, psikologiko, intelektual eta sozialen erritmoaren arabera, eskolako kirolaren jarduerak kirolari ekiteko hasierako prozesua bultzatuko dute. Horrekin, haurren hezkuntza balio positiboak –kirol lehiaketaren balio espeziifikoak barne- bermatzen dituzten inguruneetan garatzeko prozesua osatuko da, kirol modalitate ugariaren berri jasotzea sustatuko da, kirol ohiturak sortzea, bizimodu osasungarri batez hezte, eta modalitate ezberdinetako kirolariak eta kirol ikusleak prestatzea. Eskolako kirolaren barruan, gainera, errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol praktikari ekitea bultzatuko da, haien gaitasun eta jokamoldeengatik hauteman eta aukeratzen diren balizko talentu eta promesak beharrezko teknifikazio-baldintza egokiez balia daitezen. Errendimenduko kirolaren praktika bultzatzen duen ekimen honek haurren garapen harmoniatsua eta integrala errespetatu beharko du, alegia, haren garapen Fisiko, intelektual zein soziala.

Horrekin batera, kirol jarduera horren helburu nagusiaren arabera, hiru kirol ibilbide ezberdin ezartzen dira: parte hartzekoa, errendimenduari ekitekoa, eta kirol talentuak eta promesak identifikatzekoa.

Foru dekretu honek kirol ekintza ezberdinak biltzen dituzten kirol ibilbideak ezartzen ditu, Bizkaiko eskola kirola programa osatzen dutenak eta gure lurralde historikoko eskola-ikasleek 2018/2019 denboraldian zehar egin ahalko dituztenak.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA ETA KULTURA SAILAREN HELBURU ESTRATEGIKOA DA GURE LURRALDE HISTORIKOKO ESKOLAUMEEN ARTEAN KIROLA EGITEKO OHITURA SORTZEA.

Horretarako, ezinbestekoa da ikastetxeen eta kirol klubien lankidetzaz ahalik eta kirol eskaintzarik handiena eta onena egiteko; eskaintza hori egonkorra izan behar da eskola garaian, eta gure umeengandik hurbil egin behar da.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu honetan xedatutakoa kontutuan hartuta, txosten hauek eman dira Foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautespen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17, 39 k) eta 64.3. artikuluetan ezarritakoa ikusirik, eta Kultura Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak emandako eskumenez baliatuta, Euskara eta Kultura Saileko Foru diputatuak proposaturik eta Foru Aldundiak 2018ko uztailaren 24ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. **Bizkaiko Eskola Kirola programak 2018/2019 denboraldian izango duen arautegia onestea.**

Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan 2018/2019 denboraldinako jasota dauden kirol jardueren arautegia onesten da.

XEDATZEN DA I. TITULUA: XEDAPEN AMANKOMUNAK



1. OINARRIA XEDEA

Foru dekretu honen xedea da arauak ezartzea, Bizkaiko Eskola Kirola programanen barruan 2018/2019 denboraldirako jasota dauden kirol jarduerak arautzeko.

2. OINARRIA ESKUMENAK

1. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio eskoletako lehiaketak antolatu, kalifikatu eta baimentzea.

2. Ikastetxeek eta guraso elkarteek, klub eta kirol elkarteek, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak edo haien udal erakunde autonomoak edo kirolen udal Fundazio publikoek eta Bizkaiko kirol Federazioek, lehiaketak antolatu ahalko dituzte, honako arlo hauen arabera:

a) Ikastetxeek eta guraso elkarteek: euren ikasleentzako lehiaketak.

b) Bizkaiko kirol Federazioek: kadete eta gazte kategorietarako lehiaketak; hau da, 2018/2019 denboraldia bukatzen den urtean 15, 16, 17 edo 18 urte egingo dituzten ikasleentzako lehiaketak izango dira, eta dagokien Federazio-lizentzia izan beharko dute.

c) Udalek edo haien udal erakunde autonomoek edo kirolen udal Fundazio publikoek: euren lurralde eremuko ikastetxe eta ikasleentzako lehiaketak.

3. OINARRIA BIZKAIKO ESKOLA KIROLA PROGRAMA

1. Bizkaiko Eskola Kirola programanen barruan jasotako jarduera guztiak honako kirol ibilbide hauekoren baten barruan daude:

• **KIROLEAN PARTE HARTZEA.** Ibilbidearen helburu nagusia da aukera ematea eskola-ikasle guztiei kirol eta jarduera Fisiko ezberdinetan aritzeko. Horrela, kirolerako ohitura eta bizimodu osasungarria eurenganatzten lagundu nahi zaie.



- **ERRENDIMENDUARI EKITEA.** Ibilbidearen helburu nagusia da, hala egin nahi duten umeei, erraztasunak ematea errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol batean hasteko.
- **KIROL TALENTUAK ETA PROMESAK IDENTIFIKATZEA.** Ibilbidearen helburu nagusia da haien gaitasun eta jokamoldeengatik kirol talentu edo promesa izan daitezkeela uste den eskola-ikasleak identifikatzea, aukeratzea eta garatzea.

2. Jarduera bakoitzaren helburu nagusiaren arabera, ibilbide batean edo bestean sartuko dira jarduerak. Bizkaiko Eskola Kirolako programak honako jarduerak hauek jaso ahalko ditu 2018/2019 denboraldian zehar:

Lehiaketa jarduerak hiru motatan banatzen dira, kirol mailaren eta helburuen arabera: parte hartzekoak, errendimenduari ekitekoak eta lehiaketa murriztuak.

- Parte hartzeko lehiaketak, izenak berak adierazten duen legez, edonork parte hartzekoak dira, eta ez da inolako hautaketarik egingo. Horien helburua da kirol modalitatea hobetzea eta jarduera Fisikoa egiteko ohitura hartzea.
- Errendimenduari ekiteko jarduerak lehiaketak dira, errendimendu jakin bat lortzeko helburua dutenak, parte-hartzaileak lehiaketa Federatuetan sartu ahal izan daitezen, eskola garaia amaitu ostean. Parte hartzeko kupoak ezartzen badina ere, nahiko zabalak dira, interesa duen edozein eskola-umek parte hartu ahal izan dezan.
- Azkenik, lehiaketa murriztuak ditugu: kirol talde mugatu batentzat sortutako lehiaketak dira. Kirolariak hautatzeko inizpideak kirol modalitate bat egiteko dituzten jarrera eta gaitasun errealak zein potentzialak izango dira. Hain zuzen ere, etorkizunean kirol elitean egon litezkeen pertsonak dira.



Irakaskuntza jarduerak lehiaketatik kanpoko kirol prestakuntzarekin lotutako jarduerak dira. Prestakuntza horren mailaren arabera, kirol jarduera izan daiteke hasierako jarduera (parte hartzea borondatezkoa da, eta kirol jakin batean hasten dira eskola-umeak) edo **TEKNIFIKAZIO JARDUERA** (entrenamendu-saioak dira, eta kirol jakin baterako gaitasuna dutelako hautatu duten eskola-ume talde bat hobetzeko egiten dira).

DETEKTATZEKO JARDUERAK saio bakan batzuk dituzten jarduerak dira, eta horien helburua da kirol jakin batean errendimendu ona izateko gaitasun eta jarrerara bereziak dituzten eskola-umeak topatzea.

KIROL ETA KULTUR JARDUERAK, hau da, kirolari lotutako kultur jarduerak (kirol museoetara joatea, kirol baten historia ezagutzeta...), eta aisialdiko jarduerak, hau da, kirola lehiarik gabe egiten dena (mendi-inteerrak, zikloturismoa...).

IRAKASTEKOAK	Hasierakoak (benjaminarena)	Teknikazioa (kimuak, 2. urtea)	Teknikazioa (kimuak, 2. urtea)
LEHIAKETA	Parte hartzekoak (benjamina)	Errendimenduari ekitekoak (kimuak, 2. urtea)	Murriztuak (2. urteko kimuak)
DETEKTATZEA	1. urteko kimuak	1. urteko kimuak	1. urteko kimuak
BESTE BATZUK	Aisialdikoak, kirola eta kultura (benjaminarekoak)	Aisialdikoak, kirola eta kultura (2. urteko kimuak)	Aisialdikoak, kirola eta kultura (2. urteko kimuak)
	Kirolean parte hartzea	Errendimenduari ekitea	Kirolerako talentuak eta promesak identifikatzea
IBILBIDEAK			



4. OINARRIA PARTE HARTZAILEAK

Honako hauek ahalko dute parte hartu Bizkaiko Eskola Kirola programaren 2018/2019ko jardueretan:


- Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztiak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, elkarte-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten kirol elkarte eta/edo taldeak, eta Bizkaian bizi diren eta/edo Bizkaian eskolatuta dauden neska-mutilak.

- **HEZIKI** eta Multikirol jardueretan, izena eman ahal izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, zein Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, haien udal erakunde autonomo edo kirolen udal Fundazio publikoak.

- Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetan ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxeak eta lurralde historiko horietako kirol elkarteak eta/edo taldeak. Edo nola ere, eskabideak idatziz aurkeztu beharko dituzte, dagokien lurralde historikoan kirol arloan eskumena duen organoaren baimenarekin batera.

- Araban edo Gipuzkoan bizi diren eta Bizkaian eskolatuta ez dauden neska-mutilek ahalko dute izena eman Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruko kirol jardueretan, baina, horretarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko zentro, guraso elkarte, kirol elkarte edo talde baten izenean jardun beharko dute eta euren dagokien lurralde historikoan kirol arloko eskumena duen organoaren baimena aurkeztu.

- Oinarri honen 1., 2. eta 3. puntuetan ageri diren entitateek ziurtatu behar dute haien zerbitzu ematen dieten lan-kontratadun langile, langile boluntario eta/edo laguntzaile guztietatik, baldin eta adingabeekin harnemana izan ohi badute, inor ez dagoela epai inmoz kondenaturik sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik, prostituzio delituengatik, sexu-esplotazioagatik edo adingabeak galbideratzeagatik, ez eta gizakien salerosketa delituren batengatik ere, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua araberak. Eta hori hala dela ziurtatzeko, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emandako ziurtagiri negatiboa eskatu behar diete.



5. OINARRIA KIROLARIEN ALTA ETA ENTITATE PARTE- HARTZAILEEN IZEN EMATEA

1. Lehen aldiz Eskola Kiroleko Programako jardueretan parte hartu gura duten eskola adinean diren kirolariek (Lehiaketa, Hastapena, Jolas kirola) alta eman beharko dute www.bizkaia.eus/eskolakirola webgunean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Saileko Kirolaren ardura duen Zerbitzuan (Billboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostinalera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Pikaza kalea, 27 Bilbo-48003).
2. Eskola Kiroleko Programako edozein jardueretan parte hartu nahi duten entitateek (izan lehiaketa jarduera, hastapeneko edo aisikoa) izena "Izena emateko orria" (VI. inprimakia-EK 6) izeneko inprimakia bete beharko dute. Eskabideak www.bizkaia.eus/eskolakirola webaren bidez aurkeztuko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean kirolez arduratzen den Zerbitzuan (Billboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostinalera, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Pikaza kalea, 27 Bilbo-48003).
3. Bitarteko inFormatikorik ez duen eta beharko lituzkeen pertsona orok Kirol Etxean jaso dezake laguntza (Martin Barua Picaza 27, Bilbo) eta horretarako dau- den ordenagailuak erabil ditzake.
4. Erakunde batek Bizkaiko Eskola Kirola Egitarian lehenengo aldiz ematen badu izena, erakundearen IFZren Fotokopia ere aurkeztu beharko du.
5. Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, 10 eguneko epea emango zaio erakunde interesdunari, egin dituen akatsak zuzendu edo dagokion dokumen- tazioa aurkez dezan, eta, horrekin batera, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, ebazpena eman, eta atzera egindakotzat joko dutela, eta artxibatu egingo dutela bere eskabidea.



6. OINARRIA BAIMENAK

Foru dekretu honetan aurrez ikusi ez dinen gainerako kasuetan, beharrezkoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailari baimen-eskabidea aurkeztea, hala egin behar dela xedatzen baitu Bizkaiko Eskola Kirola programan jasota ez dagoen edozein egoeratan baimena emateko prozedura arautzen duen Foru aginduak.

OROHAR, FEDERAZIO LIZENTZIA EDUKITZEKO BAIMENEK BERTAN BEHERA UTZIKO DUTE ESKOLA KIROLEKO LIZENTZIA, ETA EZIN IZANGO DA BERAZ PARTE HARTU DAGOKION KIROL MODALITATEKO BIZKAIKO ESKOLA KIROLEKO PROGRAMAREN BAITAKO PROBA EDO LEHIAKETETAN.

7. OINARRIA ASEGURUA

Programaren barruko kirol jardueretan parte hartzen dutenek aseguru-poliza bat izango dute, Bizkaiko Foru Aldundiak harpidetua, eta poliza horrek honako es-taldura hau bermatuko die:

- a) Osasun-laguntzako aseguruia, baldin parte-hartzaileak ez badu beste agiri ba-ten bidez laguntza hori jasotzeko eskubiderik.
- b) Erantzukizun zibileko aseguruia.
- c) Kalte-ordaina emateko aseguruia, parte-hartzaileak galera anatomiko edo funtzionalen bat duenerako, edo —aseguruei buruzko legeriak baimendutako ka-suetan— parte-hartzailea hiltzen denerako.

8. OINARRIA EUSKARAREN ERABILERA

Jarduerak garatzean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak era-biltzen direla bermatu behar da, eta, batez ere, publikitateari eta dokumenta-zioari dagozkien alderdi guztietan (gutunak, kartelak, liburuxkak, egitarauak, me-gafonia...).



9. OINARRIA ESKOLA KIROLEKO PROIEKTUA

1. Eskola kiroleko proiektua erakundearen barneko kudeaketarako eta gizarte-ratzeko agiri bat da, eskolaumeentzako kirol jarduerari dagokienez erakundearen helburuak, egiturak eta planak jasotzen dituena.

Erakundeek nahi badute eskolako kirol proiektua kontuan har dadin diru-laguntza jasotzeko, aurkeztu beharko dute proiektu hori; PROIEKTUAK, **LEHEN ALDIZ AURKEZTEN BADA EDO 2017-2018 DENBORALDIAN ONETSI EZ BADA**, gutxienez honako eduki hauek jaso behar ditu:

- a) Inguruaren azterketa.
- b) Identitate-printzipioak (Nor gara?)
- c) Xede eta helburuak.
- d) Antolakuntza-egitura.
- e) 018/2019ko jarduera-planak (kirol arloan, ekonomian, prestakuntzan, komunikazioan eta osasun arloan).
- f) 2018/2019ko jardueren urteko programa.
- g) Eskola kontseiluak (ikastetxeak, guraso elkarteak eta lotutako erakundeak) edo batzar orokorrak (kirol elkarteak eta/ edo kirol taldeak) emandako onarpenaren akta.

2. Erakunde bati 2017-2018 denboraldian **ONARTU BAZAIO** eskola kiroleko proiektua, honako agiriak bakarrik aurkeztu beharko ditu:

- a) 2018/2019ko jarduera-planak (kirol arloan, ekonomian, prestakuntzan, komunikazioan eta osasun arloan).
- b) 2018/2019ko jardueren urteko programa.
- c) 2017/2018ko memoria.
- d) Zuzendaritzaren onespren akta (ikastetxeak, guraso elkarteak eta lotutako erakundeak) edo Zuzendaritza Batzondearena (kirol elkarteak eta/ edo kirol taldeak) emandako onarpenaren akta.



Hala ere, erakunderen bati **2017-2018 DENBORALDIAN ZEHAR ADIERAZI BAZAIO HOBEKUNTZAK EGIN BEHAR DITUELA** 9.1 oinarriaren atalen batean (a, b, c eta/ edo d letretan), bendin aurkeztu beharko d(it)u(z)te hobetuniko atala(k) 2018-2019ko kirol-proiektuan, horrela proiektua onartua izan dadin.

3. Aurkezteko epea: 1 eta 2 puntuetan ageri den dokumentazioa **2018KO IRAI-LAREN 3 TIK ABENDUAREN 21ERA** aurkeztu ahal izango da, biak barne.

Dokumentazioa www.bizkaia.eus/eskolakirola webaren bidez aurkeztuko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean kirolez arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1, astelehenetik ostinalena, 8:30etik 13:30era) edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Pikaza kalea, 27 Bilbo-48003).

Bizkaiko Foru Aldundian kirolez arduratzen den zerbitzuak publiko egin dezake eta zabaldu aipatutako eskola kiroleko proiektua aurkeztzen duten entitateen izena, eta baita ere azaldutako gutxieneko edukietako b eta c puntuetako testu osoa ere.

Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako diru-laguntzen eskabidean ezinbesteko baldintza ez denez, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak ez dio eskatuko interesdunari ez akatsa zuzentzeko, ez agiriak gehitzeko.

Eskola kiroleko proiektua lantzeko inFormazio gehiago www.bizkaia.eus/eskolakirola webean dago.

II. TITULUA: LEHIAKETA JARDUERAK



10. OINARRIA LEHIAKETAKO ARAUDI OROKORRA

Lehiatzeko kirol modalitate guztiek lehiaketa araudi orokor bera izango dute, www.bizkaia.eus/eskolakirola web gunean argitaratuko dena.

Lehiaketako araudi orokorrak ezarritako esparruaren barruan talderen bat antolatu ezin duten erakundeek (parte-hartzaile kopuruagatik; eskualde, herri edo sexu inizpideengatik; goragoko edo behegoko kategoría baten parte hartzeagatik, eta abar) kontsulta egin diezaiokete Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Atalari (Rekalde zumarkalea, 30, 1. solairua - Bilbo). Atal honek ahalik eta lasterren egingo du kasu jakin bakoitzaren gaineko txostena, eta jarduerak ahalik eta ondoen garatzeko konponbide egokia bilatuko du.

11. OINARRIA PARTAIDETZA

1. Programan parte hartzen duten erakundeek instalazio egokiak izan behar dituzte izena eman duteneko jarduerak egiteko.

2. **FUTBOLEKO KIROL MODALITATEETAN, BAI GIZONEZKOENEAN BAI MISTOAN (F7 ETA F11) BIZKAIAN EGOITZA DUTEN KIROL ELKARTE EDOTA KLUBEK AURREKO DENBORALDIAN IZENA EMANDAKO KIROLARIEN %75A MANTENDU BEHARKO DUTE. EZ DIRA KONTUAN HARTUKO AURREKO DENBORALDIAN AIPATUTAKO KIROL MODALITATEREN BATEAN IZENA EMANDA EMANDA EGON EZ DIREN ESKOLA ADINEKO KIROLARIEN ALTAK. BALDINTZA HAU BETETZEN EZ BADUTE ENTITATEK LEHIAKETA JARDUERETAN PARTE HARTZEAGATIKO DIRU LAGUNTZAK JASOTZEKO AUKERA GALDUKO DU.**

Ez zaie atal honetan ezarritakoa aplikatuko aurreko denboraldian F7 eta F11ko talderik aurkeztu ez duten entitateei.

3. Lehiaketek irauin bitartean, taldekako eta banakako kirolean, aldaketak egin ahaliko dira osakeran. Horretarako epea modalitate eta maila horretan izenak emateko azken egunaren ondoko lau (4) hilabeteak izango dira, baina inoiz ezingo dira egin lehiaketaren azken hilabetearen barruan.

4. Taldekako kirolean, erakunde parte hartzaileek (kirol taldeek, ikastetxeek, guraso elkarteak) beste erakunde batzuetan ikasten duten kirolarien izenak eman ditzakete, baldin honako betekizun hauek betetzen badituzte:

Kirolariak/ek ikasten ari den/diren ikastetxeak kirol modalitate, maila eta sexu berako izena eman badu, kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen idatzia aurkez-



tu behar da, eredu ofizialaren arabera (I. inprimakia- EK 1) eta ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

Agiri hori ez da beharrezkoa izango baldin eta kirolariaren ikastetxeak ez badu izenik ematen kirol modalitate, kategoria eta sexu bererako.

Euskara eta Kultura Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuak datu horiek berritzi edo/eta egiaztatzeke eskubidea izango du.

Ikastetxeei dagokienez, taldeko kirolarien % 35 gutxienez izan behar dira ondezkatzen duten erakundeko ikasle, baldin erakunde hori bada taldera kirolari gehien dakarrena.

5. Banakako kiroletan, erakundeek beste ikastetxe batzuetan matrikulatutako kirolarien izenak eman ditzakete, baldin ikastetxe horiek kirol modalitate berbererako izena ematen ez badute. Euskara eta Kultura Saileko kirolaz arduratzen den zerbitzuak datu horiek berritzi edo/eta egiaztatzeke eskubidea izango du.

Kirolariak/ek ikasten ari den/diren ikastetxeak kirol modalitate, maila eta sexu bererako izena eman badu, kirolariaren izen-deiturak jasotzen dituen idatzia aurkeztu behar da, eredu ofizialaren arabera (I. inprimakia--EK 1) eta ikasketak egiten dituen ikastetxearen zigilua eta ikastetxeko zuzendariak edo/eta kirol arduradunak sinatua.

6. Lehiaketa-jardueretan lehen aldiz izena ematen duten kirolari guztiek erantsi beharko dituzte errola-ziurtagiria, batetik, eta, bestetik, diploma bat egiaztatzen duena kirolariaren aitak, amak edo tutoreak egina dutela **“ESKOLA KIROLAREN GAKOAK GURASOENTZAT”** online prestakuntza-pilula. Eskola-kirolaren web-orrian egin daiteke prestakuntza hori: www.bizkaia.eus/eskolakirola.

7. Eskola Kirola egitarauan izena emana duten eta parte hartzeari utzi nahi dioten taldeek edo/eta partaideek idatziz jakinarazi beharko dute bajarako eskaria.

Kirolari bati baja emateko, haren aitak, amak edo tutoreak beren-beregi emaniko baimena izan behar du kirolaria izena emanda dagoen erakundeak.

Modalitatearen batean izena emana duten taldeei edo/eta partaideei, honretarako programatutako jardueren batean parte hartzen ez badute, baja emango zaie.

Halaber, kirolaz arduratzen den zerbitzuak baja eman diezaike talde zein kirolariei, denboraldian zehar gerta daitezkeen inguruabar desberdinen kariz.



8. Lehiaketako egunak kirol hezkuntzaren zati garrantzitsua dira. Hori horrela izanik, kirol modalitateetako joko arauak aldatuz joan dira inskribatutako guztiek parte hartu ahal izan dezaten, modu nabarmenean, lehiaketako egun orotan.

Arrazoi berbera del bide, helburu bakarra emaitza duten kirolarien deialdirik ez da egingo. Kirol hastapen adin hauetan emaitzak ez luke izan behar helburu behinena.

Emaitzak lortzea beste helburunik ez duten kirol-deialdiak egiten dituzten erakundeek galdu egin dezakete eskola-kirolaren programako lehiaketetan parte hartze-ko eskubidea eta/edo diru-laguntza jasotzekoa.

Dekretu honi dagokionez, deialdi batek emaitzak lortzea beste helburunik ez duela joko da baldin eta kirolari bat lehiaketa batetik kanpo uzten bada eta horren arrazoiak ez bada hauetarikoren bat:

- a) Lesioa edo gaixotasuna.
- b) Erakundearen diziplinazko neurri bat.
- c) Federazioaren zehapena.
- d) Eskola-umeak ezinezko izatea parte hartzea.
- e) Izena ematen duten eskola-umeen kopurua handiagoa izatea deialdian sar daitezkeenena baino. Halakoetan, ekitatiboki banatu behar da, izena emandako kirolari guztien artean, nor ez doan jardunaldi bakoitzera.

Eskola Kirolaren Atalak partida bakoitzeko arbitroen aktak begiratu dituzte ikus-teko ea deialdi baten helburua emaitzak lortzea den bakarrik ala ez. Horretarako, erakundeek eta klubek ondoren aipatzen den dokumentazioa jarri beharko dute Eskola Kirolaren Atalaren esku, kasuan kasuko arrazoiak kontuan harturik:

- a) Lesioa edo gaixotasuna egiaztatzen duen agiri bat, halakoak emateko eskumena duten osasun-langileek emana (medikuek).
- b) Diziplinazko neurriaren jakinarazpena (zehapena eragin duen gertaera jasota), kirolariaren aitak, amak edo tutoreak sinatua.
- c) Bizkaiko Federazioaren zehapenaren jakinarazpena.
- d) Ez-egotearen jakinarazpena, kirolariaren aitak, amak edo tutoreak sinatua.
- e) Erabili den sistema ekitatiboaren deskripzioa.

Emaitzak lortzea beste helburunik ez duten deialdiak egiten dituzten erakundeek ezingo dute izan lehiatzeko kirol jardueretan parte hartzen duten erakundeentzako



diru-laguntza Foralen onuradun, ez eta halako jarduerak bezalaxe Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartzen den Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako laguntzen onuradun ere.

9. Futbol R eta A-n izena eman duten taldeek berauetan iena emandako jokalarien %80ko asistentziarekin parte hartu beharko dute partida guztietan. Talderen batek ez balu lortuko partida atzeratea eta aipatutako gutxieneko ehunekora iristetik ez balu izango, partida galdutzat emango zaio. Bi taldeak balira arau hau betetzen ez dutenak, biei emango zaie partida galdutzat.

12. OINARRIA ESKOLA KIROLEKO LIZENTZIAK

1. Izena eman duten kirolari, entrenatzaile eta ordezkariak lehiaketarako akreditatzen dituen lizentzia jasoko dute. Datu pertsonalez, taldeaz eta erakundeaz gain, lizentziak honako datu hauek jasoko ditu:

- a) Argazki digitalizatu bat, duela gutxi egina.
- b) Kirolarien kasuan, gurasoetariko batek edo tutoreak –hala badagokio- sinatutako agiria, adierazten duena batetik, haunra kirola egiteko osasun egoera egokian dela eta bere gain hartzen duela horren erantzukizuna, eta, bestetik, onartzen dituela Bizkaiko Eskola Kirola Programak urte horretako denboraldirako ezarritako gainerako arauak.

2. LEHIAKETA GUZTIETAN, IZENA EMAN DUTEN PERTSONEK (entrenatzaileek, kirolariak eta ordezkariak) **AURKEZTU BEHARKO DITUZTE LIZENTZIA ETA AGIRIAK**, behar bezala beteta, aurreko aginietan azaltzen diren datuak egiazkoak direla berresteko. Gainera, epaileek eta arbitroek zalantzarik izanez gero parte-hartzaileen adinaz edo nortasunaz, lizentzia eta agiri horiek eskatu ahaliko dituzte.

13. OINARRIA TITULAZIOAK

Foru dekretu honen 4. oinarrian agertzen diren partaideak (ikastetxea, kirol elkarteak, klub eta guraso elkarteak, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak eta/edo haien udal erakunde autonomoak edo kirolen udal Fundazio publikoak) egiaztatze-agiriak aurkeztu ahaliko, euren entrenatzaile eta kirol arduradunek honako titulazio eta ziurtagiri hauek dituztela egiaztatzeko:

a) Zentroko kirol arduraduna:

KIROL TITULAZIOA	TITULAZIO AKADEMIKOA	BESTE BATZUK	ZIURTAGIRI PROFESIONALAK
	Gorputz-Hezkuntza liz. edo g./ Jarduera Fisikoaren eta kirolaren Zientzietako liz. edo gra		
	Gorputz-hezkuntzako Magisteritza edo Gorputz-hezkuntzako Magisteritzan g. / Natur ingurunean kirol jarduera Fisikoak bideratzeko goimailako zikloa / Goi-mailako zikloa Gizarteko eta kiroletako irakaskuntzako eta animazioko goi-mailako teknikaria/ Goi Kirol Teknikaria		
ENTRENATZAILE NAZIONALA III. MAILA	Magisteritza edo Magisteritzan g./ Natur ingurunean kirol jarduera Fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa		
HERRIALDEKO ENTRENATZAILEA II. MAILA	Kirol Teknikaria	Astialdiko hezkuntza jardueren zuzendaria	Kirol-, gorputz- eta josteta-animazioa desgaitasuna duten pertsonentzat lgeriketa-jarduerak
	Pedagogia edo Pedagogian g. / Psikologia edo Psikologian g./ Gizarte-hezitzailea		

b) Entrenatzaileak:

KIROL TITULAZIOA	TITULAZIO AKADEMIKOA	BESTE BATZUK	ZIURTAGIRI PROFESIONALAK
ENTRENATZAILE NAZIONALA III. MAILA	Gorputz-Hezkuntzan liz. edo g./ Jarduera Fisikoaren eta kirolaren Zientzietako liz. edo g. / Goi Kirol Teknikaria		
HERRIALDEKO ENTRENATZAILEA II. MAILA	Magisteritza, G.H. edo Magisteritzan G.H. g. / Natur ingurunean kirol jarduera Fisikoak bideratzeko goi mailako zikloa / Goi-mailako zikloa Gizarteko eta kiroletako irakaskuntzako eta animazioko goi-mailako teknikaria / Kirol Teknikaria		
